



Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bititza guztian zeharreko
ikastetari buruzko dokumentuak

Ikasten duten pertsonak Gipuzkoan

**69. dokumentua
2020ko maiatza**

Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Turismoko eta Landa
Ingurunekeo Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de Promoción
Económica, Turismo
y Medio Rural

1. Aurkezpena	3
1.1. Aurkezpena	3
2. Ikasten duten pertsonak	4
2.1. Partaidetza bizi osoko ikaskuntzan.....	4
2.2. Ikaskuntza, adina eta prestakuntza	6
2.3. Ikaskuntza eta lan-merkatuarekiko harremana	8
3. Nork ikasten dute?	9
3.1. Ikasten duten pertsonak.....	9
3.2. Ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duten pertsonak	11
3.3. Zergatik ez dute ikasten?	13

1. Aurkezpena

1.1. Aurkezpena

Gipuzkoak ezagutzen oinarritutako ekonomia duen eta lehiakorra eta dinamikoa den gizarte bihurtu nahi du. Horretarako, ikaskuntzaren gizarte sortu behar da, ekonomia produktiboagoa garatu eta bizi-kalitatea hobetu ahal izateko.

Helburu hori du Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak, eta hala, uste du ikaskuntza eta talentuaren garapena direla aurrerabide eta kohesio soziala eragiteko gai diren elementu estrategikoak, eta pertsonak, berriz, eredu berri horren giltzarriak. Hau da, talentuaren, antolaketaren eta teknologiaren arteko oreka egokia topatuta, modu iraunkorrean garatuko den lurralde bihurtzeko.

Eredu hori lortzeko eta horri eusteko, funtsezkoa da ikastea: gero eta konplexuagoa den gizarte ireki, malgu eta interkonektatu batean, pertsonen jarduerak, beren ezagutzak, gaitasunak eta kualifikazioak hobetzeko, bizitza osoko ikaskuntza (pertsonala, zibikoa, soziala edo profesionala) osatzen dute.

Ikerketa-proiektu honek Gipuzkoako pertsona helduek (25 eta 74 urte artean) egindako ikaskuntza-jardueraren jarraipena lantzen du; hori urteko kontsulta¹ batean babesten da (urteko lehen hiruhilekoa). Dokumentuak emaitza orokorrak aurkezten ditu; pertsonen arlo garrantzitsuak kokatzen ditu 2020ko ikaskuntzako jarduerekin lotuta.

¹ Kontsulta itxia, alarma-egoera aldarrikatu den astean (kovid-19).


2. Ikasten duten pertsonak

2.1. Partaidetza bizi osoko ikaskuntzan

Gipuzkoako hamar pertsona heldutik lauk parte hartzen du prestakuntza-jardueretan

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza² oso presente dago Gipuzkoako 25 eta 74 urte bitarteko helduen artean: hamarretik lauk adierazi du azken urtean (kontsulta egin aurreko hamabi hilabeteak) prestakuntza-jardueraren bat egin duela. Ehuneko hori 2019an erregistratutakoaren antzekoa da (%39,6).

1. grafikoa Ikasten duten pertsonak, generoaren arabera. 2019-2020



Iturria: Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

² Barnean hartzen ditu hezkuntza-titulu ofizial bat lortzera bideratutako ikaskuntza-jarduerak (ikaskuntza formala), bai eta modu antolatua eta iraunkorrean egiten direnak ere, baina titulu ofizial bat lortzera bideratzen ez dutenak (ikaskuntza ez-formala).

Gizonek parte-hartze tasa txikiagoa dute

Aurreko ekitaldietan bezala, 2020an, gizonen partaidetza-maila emakumeena baino pixka bat baxuagoa da. Ildo horretan, prestakuntza-jardueretan parte hartzea %38,3koa da gizonen artean, eta ratio hori %42,4koa da emakumeen kasuan (+4,1 puntu). Eta, aurreko urteko emaitzen oso antzekoak dira.

Ikaskuntza motei erreparatuta, nabarmentzekoa da parte-hartze handiagoa dagoela ikaskuntza ez-formalean (%34,2) ikaskuntza formalean baino (%8,3). Generoaren ikuspegitik, banaketa hori mantendu egiten da, baina emakumeek kuota handiagoak dituzte bi ikaskuntza-motetan (%35,2 eta %9,9, hurrenez hurren; eta gizonen kasuan, beriz, %33,3 eta %6,8).

Gipuzkoako biztanleria heldua bere gaitasunak eta trebetasunak helduaroan garatzen jarraitzen duen kolektibo gisa finkatzen da, eta horrela, bizitza osoan zeharreko ikaskuntza sustatzen du. Horren erakusgarri da hamar pertsona helduetatik lauk adierazi dutela azken urtean prestakuntza-jardueretan parte hartu dutela, eta emakumeen kasuan eragin handiagoa izan dutela, proportzio hori nahiko egonkorra da azken hamarkadan, baina oso profil leuna eta gorakorra du³.

1. taula Ikasten duten pertsonak, ikaskuntza-motaren eta generoaren arabera. 2019-2020

25 eta 74 urte arteko biztanleria (%)

	2019	2020
Ikasten duten emakumeak	41,7	42,4
Ikaskuntza formala	10,2	9,9
Ikaskuntza ez formala	36,7	35,2
Ikasten duten gizonak	37,5	38,3
Ikaskuntza formala	8,5	6,8
Ikaskuntza ez formala	33,5	33,3

Etengabeko ikaskuntza: ikasteko moduren bat edo biak batera egitea

Iturria: Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

³ Xehetasun gehiagorako, DOK-68, Ikaskuntza bizitzan zehar eta ikasten duten pertsonak, 2008-2018.

2.2. Ikaskuntza, adina eta prestakuntza

Ikaskuntzan parte-hartze handiagoa dago gazteenen artean


Adinak lotura estua du helduek ikaskuntzan duten parte hartzearekin. Ondorengo grafikoan jasotzen den bezala, prestakuntza-jardueretako parte hartze maila beheranzkoa da adinarekin:

- Adin-tarte gazteenetan, pertsonen erdiek baino gehiagok adierazi dute azken urtean nolabaiteko prestakuntza egin dutela.

Zehatzago esanda, 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen %58,8k baieztatzen du ikaskuntza-jardueretan parte hartzen duela, eta %52k, 35 eta 44 urte bitarteko kasuan. Bi taldeek antzeko parte hartzea dute aurreko ekitaldiarekin alderatuta (+2,3pp eta +1,0pp, hurrenez hurren).

- Parte hartze maila baxuagoa da 45-54 urtekoen taldean, %43,5eko ikaskuntza-tasarekin (+1,1pp 2019rekiko).
- Azkenik, 55 urtetik gorako pertsonek dituzte partaidetza-tasa baxuenak: 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen %28,2k parte hartzen du prestakuntza-jardueretan (-1,2pp), eta %15,9ra jaisten da 65 eta 74 urte bitarteko pertsonen kasuan (+0,7pp).

2. grafikoa Ikasten duten pertsonak, adin taldearen arabera. 2019-2020



Iturria: Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneke Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

Pertsonen titulazioa altuagoa den heinean ikaskuntzan parte hartzea ere altuagoa da


Hezkuntza, eskuratutako ikaskuntza maila bezala neurtuta, Gipuzkoako pertsona helduek ikaskuntzako jardueretan duten parte hartze mailan eragiten duen beste osagaietako bat.

lido horretan, ikusten da partaidetza-tasak gora egiten duela lortutako gehieneko prestakuntza-maila hobetzen den heinean. Horrela,

- Helduen hezkuntza-mailak gora egiten duen heinean, ikaskuntza-jardueretako parte-hartzeak ere gora egiten du. Hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonen %56,6k dio ikasten jarraitzen duela, 2019an erregistratutako ehunekoak ehuneko 3 puntu hobetuz.
- Bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen herenak baino gehiagok adierazi du azken urtean ikaskuntza-jardueretan parte hartu duela, eta 2019ko maila berberetan mantendu dela (%34,6).
- Azkenik, eskuratutako prestakuntza-maila txikieneko pertsonen parte-hartzea %20tik beherakoa da, baina haien balioak hobetu egin dira 2019arekin alderatuta (+2,6pp).

3. grafikoa Ikasten duten pertsonak, lortutako ikasketa mailaren arabera. 2019-2020

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

2.3. Ikaskuntza eta lan-merkatuarekiko harremana

Lana egiten duten bi pertsonatik batek ikasten du

Gipuzkoako helduen lan-egoerak eragin zuzena du ikaskuntzan duten parte-hartze mailan. Hori horrela dela berresten da landunek (ordaindutako enplegua) ikaskuntza-jardueretan duten partaidetza (%51,6) handiagoa delako langabezian daudenen (%36,0) artean baino, eta, batez ere, ez-aktibotzat (%16,8) edo lan-merkatuan sartu gabekotzat (%9,4) dituztenen aldean.

Zehazki, ordaindutako enplegua duten pertsonen erdiak baino gehiagok ikasi du azken urtean eta, gainera, 2019ko tasarekin alderatuz ehuneko altuagoa erregistratu da (+2,7pp); dena den, tasa hau heren batera gutxitzen da langabezian dauden pertsonen artean eta 2019rekin alderatuz baxuagoa da (-5,7pp).

Bestalde, biztanleria ez-aktiboko pertsonen -erretiroa hartuta edo lan-merkatuan sartu gabe daudenen artean- partaidetza-tasak (%16,8 eta %9,4, hurrenez hurren) nabarmen txikiagoak dira. Are gehiago, 2019ko datuekin alderatuta, bi blokeek zertxobait behera egin dute (-0,8pp eta -0,1pp, hurrenez hurren).

Aipatu behar da kolektibo horretan oso garrantzitsua dela adinaren faktorea, 65 urtetik gorako pertsonen pisu erabakigarriarekin, oro har, hezkuntza-maila txikiagoa baitute Gipuzkoako helduen 55 urtetik beherako adin-taldeekin alderatuta.

2. taula Ikasten duten pertsonak, lan-merkatuarekiko harremanaren arabera. 2019-2020

25 eta 74 urte arteko biztanleria (%)

	2019	2020
Ordaindutako enplegua du	48,9	51,6
Langabezian	41,7	36,0
Erretiratua	17,6	16,8
Lan-merkatura txertatu gabekoa	9,5	9,4
Guztira	39,6	40,3

Iturria: Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

3. Nork ikasten dute?

3.1. Ikasten duten pertsonak

Oro har, profila 25 eta 44 urte bitarteko emakumeari dagokio, hirugarren mailako ikasketak eta ordaindutako lana dituen

Azken urtean prestakuntza-jarduerak egin dituzten Gipuzkoako pertsona helduen ezaugarriei erreparatuta, nabarmendu behar da profila aurreko urteetakoarekin alderatuta egonkor mantendu dela. Zehazki,

- Emakumeen parte hartzea zertxobait altuagoa. 2020an ikasten duten pertsonen erdia baino gehiago emakumeak dira (%52,8), eta gizonen ordezkari bat txikiagoa da (%47,2). Bi proportzio horiek ia ez dira aldatzen 2019ko zifrekiko.
- Pertsona heldu gazteenen parte hartzea erabakigarria da. Adinaren osagaiak agerian uzten du ikaskuntza-jardueretan parte hartzen duten hamar pertsonatik ia seik 25 eta 44 urte artean dituztela. Tarte batera, 45 eta 64 urte bitarteko pertsonak daude (%37,7) eta 65 urtetik gorakoak (%6,5); azken horiek askoz ere adierazgarritasun txikiagoa dute.
- Titulazio maila altuena duten pertsonen parte hartze nabarmena. Helduen hezkuntza-mailari dagokionez, ikaskuntzako jardueretan parte hartzen duten pertsona helduen bi herenak goi mailako ikasketak ditu (%60,8). Halaber, hamar pertsonatik hiruk bigarren mailako edo lanbide heziketako titulazioa du (%27,8) eta hamarretik batek lehen mailakoa (%11,4).
- Enplegua duten pertsonak dira ikasten dutenak. Azkenik, enplegagarritasunaren eta ikaskuntzan parte hartzearen arteko lotura berresten da. Zehazki, azken urtean prestakuntzaren bat egin dutela aitortzen duten pertsonen %79,6k ordaindutako lan edo lanbide bat egiten du, eta %8,3

langabezian dago. Bi kolektiboak lan-merkatuarekin konektatuta daudenak dira.

Aitzitik, ikasten duten pertsonen artean, ia zazpitik batek (% 16,1) ez du inolako loturarik enpleguarekin.

3. taula Ikaskuntza-jarduerak egin dituen biztanleriaren ezaugarriak 2019-2020

25 eta 74 urte arteko biztanleria (%)

	2019	2020
Generoa		
Gizonezkoak	47,2	47,2
Emakumezkoak	52,8	52,8
Adina		
25-34 urte	23,3	23,8
35-44 urte	32,1	32,1
45-64 urte	35,9	37,7
65 urte eta gehiago	6,3	6,5
Ikasketa maila		
Lehen mailako ikasketak	8,2	11,4
Bigarren mailako ikasketak	30,5	27,8
Goi mailako ikasketak	61,3	60,8
Egoera lan-jarduerari dagokionez		
Ordaindutako enplegua du	74,5	79,6
Langabezian	9,4	8,3
Erretiratua	10,4	9,9
Lan-merkatura txertatu gabekoa	1,3	2,2
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

3.2. Ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duten pertsonak

45 urtetik gorako gizonak, lehen mailako ikasketekin

Azken urtean prestakuntza-jarduerarik ez egitea erabakitzen duten helduen ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

— Gizonezkoen presentzia. Gizonen kolektiboak presentzia handiagoa dauka ikasten ez duten pertsonen artean; izan ere, inkesta erantzun duten pertsonen %51,6 dira.

— Adineko pertsonen presentzia handiagoa. Adinaren arabera ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duten pertsonen kolektiboaren desagregazioak erakusten du 45 urtetik gorako adin-estratuetakoko pertsonen ekarpena handiagoa dela, kolektibo horren guztizkoaren bi heren dira (%68,7).

Izan ere, nabarmentzekoa da talde gazteenaren (25-34 urte) ekarpen txikiagoa, ikasten ez duten pertsonen hamarretik bat baino ez baitira (%11,3).

— Hezkuntza-maila txikiagoa duten pertsonen ekarpen handiagoa. Hezkuntza-mailen arabera, guztiek antzeko pisu erlatiboa dute, ikasten duten pertsonen artean ez bezala. Horrela, ikusten da ikasten ez duten pertsonen herenak lehen mailako ikasketak dituztela, Gipuzkoako eta ikasten duten pertsonen batez bestekoaren oso gaineratik daudenak.

Aldiz, heren batek adierazten du goi-mailako ikasketak dituela (%31,5), eta proportzio hori ikasten duten pertsonen artean erregistratutakoaren erdia da. Hala ere, ikasten ez duten pertsona kualifikatuenean osatzen dute talderik txikiena prestakuntza-jardueretan parte hartzen ez dutenen artean.

— Pertsonen erdiak lan egiten du. Egia esan, ikasten duten pertsonen eta ikasten ez dutenen artean alderatutako emaitzak, lan-merkatuan parte hartzeari dagokionez, nabarmena da ikasten dutenen hiru laurdenek lan egiten dutela; ehuneko hori ikasten ez dutenen artean erdia da, eta datu garrantzitsua da, ikasteko potentzialtasuna (arrazoi profesionalak) duen kolektibo bat dagoela erakusten duena, baina, hala ere, ez du egiten.

Bestalde, ikasten ez duela dioten hiru pertsonatik bat lan-merkatutik atera da (erretiroa), eta, gainera, adin jakin bateko pertsona da (heldua; ahal dela, 65 eta 74 urte bitartekoa). Hau da, ikaskuntza ez da bizitza profesionala hobetzearen ondorio, eta, beraz, motibazioa pertsonala edo bizitza pribatuaren alorrekoa da, agian ikaskuntza-jardueretan parte hartzeko nahiaren edo ekimenaren eragile txikiagoa baita.

Hala eta guztiz ere, ikusten da ikaskuntzan parte hartzen ez duten pertsonak, oro har, hezkuntza-maila txikiagoa eta lan-merkatuarekin harreman txikiagoa duten adinekoen profilak direla. Hala ere, kolektibo gazteenek hobetzeko tartea dutela egiaztatzen da.

4. taula Ikasten duen eta ikasten ez duen biztanleriaren ezaugarriak. 2020

25 eta 74 urte arteko biztanleria (%)

	Ikasten duen biztanleria	Ikasten ez duen biztanleria
Generoa		
Gizonezkoak	47,2	51,6
Emakumezkoak	52,8	48,4
Adina		
25-34 urte	23,8	11,3
35-44 urte	32,1	20,0
45-64 urte	37,7	45,5
65 urte eta gehiago	6,5	23,2
Ikasketa maila		
Lehen mailako ikasketak	11,4	33,0
Bigarren mailako ikasketak	27,8	35,5
Goi mailako ikasketak	60,8	31,5
Egoera lan-jarduerari dagokionez		
Ordaindutako enplegua du	79,6	50,5
Langabezian	8,3	10,0
Erretiratua	9,9	33,2
Lan-merkatura txertatu gabekoa	2,2	6,3
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

3.3. Zergatik ez dute ikasten?

Familia-erantzukizunak eta ordutegien bateraezintasuna dira ez ikasteko argudio nagusiak

Prestakuntza-jarduerarik egin ez duten pertsona helduei galdetu zaie zergatik ez duten egin. Emaitzek erakusten dute ikasteko oztoporik handiena familia-erantzukizunei dagokiela (%33,8), hau da, kontziliaziotik eratorritako arrazoiak ondorioztatzen dira. Argudio horrek gora egin du 2019ko datuekin alderatuta (+2,5 puntu).

Era berean, eta ehuneko oso antzekoekin, azken urtean prestakuntzarik jaso ez duten pertsonen heren batek adierazi du lan-ordutegia ez dela bateragarria prestakuntza-jarduerekin (%32,6).

Aipatutako hirugarren arrazoia, lau pertsonatik batek aipatu duena, motibazio-falta da (%22,8). Kontutan izan behar da arrazoi hau adinarekin batera nabarmenki hazten den ez ikasteko arrazoia dela.

Gainerako hiru argudioek adostasun-maila txikiagoa erakusten dute, eta, beraz, ez lirateke arrazoi garrantzitsuak izango bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan parte ez hartzeko. Adinari (%13,4), gehiago prestatzeko beharrik ez izateari (%12,1) edo jardueren kostuari (%6,7) lotutako arrazoiak dira.

Oro har, prestakuntza-jarduerarik ez egiteko azaldutako arrazoien garrantzia denboran mantentzen dela ikusten da. Azken urteotan, familia-erantzukizunek, prestakuntzak lanarekin duen ordutegi-bateraezintasunak eta motibaziorik ezak osatzen dute lehen hiru argudioak.

5. taula Azken 12 hilabeteetan ikaskuntza-jardueretan parte hartu ez izanaren arrazoiak 2019-2020

Azken urtean ikasi ez duen 25 eta 74 urte arteko biztanleria (%)

	2019	2020
Prestakuntza ez da bateragarria nire lan-ordutegiarekin	33,4	32,6
Nire erantzukizun familiarrek galarazi egiten didate	31,3	33,8
Motibazioa falta zait	21,6	22,8
Behar ez ditudala uste dut, nire ezagutzak nahikoak dira	14,8	12,1
Ez daukat adinik, zaharra naizela uste dut	13,8	13,4
Garestia da, ezin dut ordaindu	6,2	6,7

Erantzun anitza

Iturria: Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

Osagai femeninoa: familia-erantzukizunak dira oztopo nagusia

Azterketa hori genero-ikuspegitik eginez gero, ikusten da argudioen pisuak zenbait desberdintasun adierazten dituela ikaskuntza-jarduerarik ez dagoela azaltzeko orduan. Zehazki, emakumeen kolektiboak gehiago aipatzen ditu familia-erantzukizunak prestakuntzarik ez izateko argudio nagusi gisa (%44,8), eta argudio horrek askoz aipamen txikiagoa jasotzen du gizonen artean (%23,5), bi sexuen artean 21,3p-ko aldearekin.

Hori esanda, gizonezkoen artean hamar pertsonatik hiruk adierazi dute prestakuntza ez jasotzeko zailtasun nagusia lan-ordutegiaren eta ikaskuntza-denboren arteko bateraezintasuna dela (%31,6). Oztopo hori, halaber, garrantzitsua da emakumeen kolektiboan, antzeko aipamena baitu (%33,6).

Ikasteko motibaziorik eza hirugarren arrazoia da gizonentzat (%24,3) zein emakumeentzat (%21,1).

Beraz, emakumeek eta gizonek hiru oztopo berberak aipatu dituzte ikaskuntza-jarduerari ekiteko eta/edo horiek eragotzi dute.

Adierazitako gainerako argudioetan ez da generoaren araberako iritzi oso desberdinik ikusten, nahiz eta esan daitekeen gizonek neurri handiagoan aipatzen dutela beren burua ikasteko zaharregizat jotzen dutela (% 16,2 eta % 10,3, hurrenez hurren) eta, argi eta garbi, jada beharrezko ezagutza dutela eta, beraz, ez dutela

uste prestakuntza gehiago behar dutenik (% 14,6 eta % 9,5, hurrenez hurren), gizonen kolektiboaren aldeko portzentajezko 5,1 puntuko aldearekin.

6. taula Ikaskuntzan ez parte hartzeko arrazoiak, generoaren arabera. 2020

Azken urtean ikasi ez duen 25 eta 74 urte arteko biztanleria (%)

	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Prestakuntza ez da bateragarria nire lan-ordutegiarekin	31,6	33,6
Nire erantzukizun familiarrek galarazi egiten didate	23,5	44,8
Motibazioa falta zait	24,3	21,1
Behar ez ditudala uste dut, nire ezagutzak nahikoak dira	14,6	9,5
Ez daukat adinik, zaharra naizela uste dut	16,2	10,3
Garestia da, ezin dut ordaindu	5,7	7,8

Erantzun anitza

Iturria: Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

Ikasteko oztopoak aldatu egiten dira pertsonen adinarekin

Helduek ikaskuntzan parte hartzen ez dutela azaltzeko adierazitako oztopoak pertsonen adinaren arabera aldatzen dira. Horrela:

- Pertsona gazteenen artean, oztopo nagusia prestakuntza eta lan-ordutegia bateraezinak izatea da. 25 eta 34 urte bitarteko gazteen %70,4k eta 35 eta 44 urte bitartekoen %46,9k aipatzen dute oztopo hori lehenik.
- Bestalde, familia-erantzukizunei erantzuteko betebeharra, batez ere, 35 eta 44 urte bitartekoen taldean (%43,8) kokatzen da ez ikasteko arrazoi nagusi bezala, baina nabarmentzekoa da, oro har, adin-tarte guztietan aipatzen den oztopo bat dela, neurri handiagoan edo txikiagoan.
- Gazteek (25 eta 34 urte bitartekoek) gehiago aipatzen dute prestakuntza-jardueren kostua ikaskuntzan parte hartzeko oztopo gisa. Maila horretan, pentsa daiteke, alde batetik, baliabide ekonomikoak mugatuagoak izaten direla, eta, bestetik, kostu handiagoko prestakuntzak egitea planteatzen dela (oro har, prestakuntza arautua).
- Azkenik, 45 eta 64 urte bitarteko kolektiboek eta 65 urtetik gorakoek aipatzen dituzte gehien ikasteko motibazio nahikorik ez izatea (%19,7 eta %36,0, hurrenez hurren).

hurren) edo ezagutza handitzeko zaharregiak izatea (%10,1 eta %34,2, hurrenez hurren). Kontuan hartu beharreko datua da hori, eta, horren ondorioz, ikaskuntzarako sustapen-neurriak izan daitezke, kolektibo horientzat.

7. taula Ikaskuntzan ez parte hartzeko arrazoiak, adin taldearen arabera. 2020

Azken urtean ikasi ez duen 25 eta 74 urte arteko biztanleria (%)

	Adin-taldeak			
	25-34	35-44	45-64	65 eta gehio
Prestakuntza ez da bateragarria nire lan-ordutegiarekin	70,4	46,9	33,5	0,00
Nire erantzukizun familiarrek galarazi egiten didate	29,6	43,8	31,2	32,4
Motibazioa falta zait	16,7	17,7	19,7	36,0
Ez daukat adinik, zaharra naizela uste dut	1,9	3,1	10,1	34,2
Behar ez ditudala uste dut, nire ezagutzak nahikoak dira	11,1	13,5	11,0	13,5
Garestia da, ezin dut ordaindu	22,2	5,2	5,5	2,7

Erantzun anitza

Iturria: Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

Metodologia: ikaskuntza-definizioen aplikazioa, neurketaren jarraikortasuna eta nazioarteko alderaketa bermatzen dituztenak

Gipuzkoako pertsona helduek egindako ikaskuntza-jardueren ezagutza urteko inkesta bat egitean oinarritzen da. Definizioak⁴ eta edukiak mantentzeak neurriaren jarraikortasuna bermatzen du, eta batez ere, nazioarteko alderagarritasuna. Zehazki, ikerketa-lerro honetan ikaskuntzako hiru kategoria handi hartzen dira kontuan:

- Ikaskuntza formala: heziketa- eta prestakuntza-zentroetan garatzen da, eta diplomak eta egiaztatutako prestakuntza lortzen dira.
- Ikaskuntza ez-formala: modu antolatuan eta iraunkorrean gauzatzen da, baina ez da titulu ofizialik eskuratzen. Ikaskuntza mota hori erakundeetan eta erakundeetatik kanpo eskura daiteke (bizitzan moldatzeko tresnak, lanarekin lotutako ikastaroak, kultura orokorra, marrazketako eskolak...).
- Ikaskuntza informala: ikasteko helburuarekin gauzatutako jarduera gisa definitzen da, baina nor bere kabuz egiten du, erakundeetara jo gabe. Ikaskuntza ez-formalaren kasuan baino antolaketa eta egituraketa gutxiagorekin eskuratzen dira ezagutzak; esaterako, familian, lanean edo norberaren eguneroko bizitzan gertatzen diren ikaskuntza-jarduerak dira.

Bizitza osoko ikaskuntzako parte-hartze tasa⁵ pertsonak ikaskuntza formaleko eta ez-formaleko jardueretan parte hartzetik abiatuta osatzen da.

⁴ Eurostaten metodologia.

⁵ Ikaskuntza informalak osatzen du ikaskuntzaren ikuspegi orokorra, baina ez dugu sartu kontaktetan, oso subjektiboa (norbere kabuz ikasten dena) eta herrialde batetik bestera oso irregularra baita. Iturria: Eurostat.



Izenburua:	Ikasten duten pertsonak Gipuzkoan 69. Dokumentua, 2020ko maiatza
Koordinazioa eta gainbegiratzea	Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua Gipuzkoako Foru Aldundia
Lantzea	IKEI, research & consultancy S.A.
Landa-lana	Datakey, S.A.